



Kutxa didaktikoa

Mitoak eta sinesmenak

Mitoak eta sinesmenak izeneko kutxak tradizio kristauaren eta paganoaren objektuak biltzen ditu. Sinesmen espiritualen eta haien mito eta erritu ezberdinen inguruan hausnartzera gonbidatzen gaituztenak.

Argizaiola

Kandela biribilduta duen haritz-zurezko zizelkatutako oholtxo antropomorfoa. Kultura tradizionalan erabiltzen da, hildakoari etxeko suarekin laguntzeko eta beste dimentsio batera igarotzean arimari argia emateko.





Eskapularioa

Kordoi luzez lotutako objektu debozionala. Bertan, babesa eskaintzen duten birjinen edo santuen irudiak irudikatzen dira, eta horiek daramatzanei, egindako promesak gogorarazten dizkie.

Teila

Jaioberriaren eta etxearen arteko lotura berehalakoa zen. Amak, edozein gaitzetatik babesteko, ezin zuen etxetik irten berrogeialdia igaro arte. Halabeharrez bakarrik joan zitekeen, baina horretarako teila bat eraman behar zuen buru gainean, etxeo babesaren ikur.




Karraka

Aste Santuan ekitaldi erlijiosoak iragartzeko erabilitako instrumentua. Aste Santuan kanpaiak isildu egiten ziren Kristoren heriotzarengatik, eta haien ordeaz, umeak ateratzen ziren karrakekin «ofizioak» iragartzera.

Kandela-itzalgailua

Guraize moduko bat barrunbe batekin, elizan kandelak itzaltzeko erabiltzen dena, metxa moztuz.



Zilizioa edo zurdatza

Janzen duenarengan mina edo deserosotasuna nahita eragiteko erabilitako osagarria. Normalean izterrean eramaten da, galtzari moduan. Bere erabilera luzaro hedatua egon zen kristau komunitate ezberdinetan, gorputz mortifikaziorako bitarteko bezala. Horrela tentazioei aurre egitea bilatzen zen. Eta, batez ere, Jesukistorekiko identifikazioa bilatuz, Pasioan jasandako sufrimenduetan.

Meza- saskitxoa

Kirtena duen saskitxoa, mezan diru-bilketa egiteko. Lehen saskitxoa irekia zen (pertsona bakoitzak zenbat ematen zuen jakiteko) eta heldulekua ez zen askatzen gaur egun bezala.





Olatak egiteko tresna

Guraizeen itxurako burdinazko tresna, olatei forma emateko. Behin olata eginda, bedeinkatzen da eta jauna emateko erabiltzen da.

Bataiorako soinekoa

Umetxoarentzako jantzia bataioaren zeremonian erabiltzeko. Belaunaldiz belaunaldi pasatzen ohi zen jantzia zen.



Hileta-osagarriak

Urre koloreko gurutzea duen zeta beltzeko oihal-osagarria, apaizak hileta-elizkizunetan erabiltzeko. Ostia sagaratuak eta kaliza dituen patena (erretilu urreztatua) estaltzeko balio du.